



[Goizeko Izarrako platerak] [Platos del Goizeko Izarra]

PLATEROK ERE BADUGU HISTORIA

GOIZEKO IZARRA|KO PLATERAK



Frantziako luxuzko zeramikagile entzutetsuenetakoek ekoiztutako bi plater gara: bata Gien-ek eta bestea, 1924az geroztik, Sarreminegue-k egina.

Bere garaiko enpresaririk handienetakoak izan zen don Ramón de la Sota y Llano bilbaotarraren jabetzakoak izan ginen. Burdingintzan, burdin-meatzaritzan, finantza munduan eta ontzigintzan parte hartzeaz gain, 1906an sortu eta 1950eko hamarkada bitartean Espainiako nagusia izan zen *Naviera Sota y Aznar* ontzi-enpresaren jabea izan zen. Lehen Mundu Gerran bere ontziteriak garraiatutako burdin-mea funtsezkoa izan zen britainiar gerra-industriarentzat eta, ondorioz, Britainiar Inperioaren Ordenako zaldun izendatua izan zen 1921ean.

Goizeko Izarra gure bidean gurutzatzean

1920an don Ramón-ek erositako Goizeko Izarra ontziko, garai hartako yaterik handienetako eta luxuzkoenetako zeneko baxeraren osagaiak ginen. 1.266 tonako desplazamendua eta 86 metroko luzera zuen ontzi bikaina, jatorrian Warrior izendatua, Ipar Ameriketako ferrokarrilen magnatea zen Frederick William Vanderbilt-en enkarguz Eskozian eraikia izan zen 1904an eta 1916an Alexander Smith Cochran-ek, New York-eko enpresari eta filantropo handiak erosi zuen. 1917an Royal Navy-k konfiskatu eta armaz hornitu ondoren, Lehen Mundu Gerran hartu zuen parte, H.M.S. Warrior izenarekin Karibeko zaintza ontziteriako guda-ontzi laguntzaile modura. Ekimen horretan sir William Lowther Grant almirantearen bandera-ontzia izan zen gainera.

Goizeko Izarrak burutu zituen kontaezin zeharkaldi eta estropadetan, pertsona ospetsu askoren otorduak eduki genituen. Dena den, gizateriaren historiari egin genion ekarpen nagusia 1936an Espainiako Guda Zibila hasi ondoren gauzatu zen. Gerra hasi baino hilabete lehenago hil zen gure nagusia eta bere seme Ramón de la Sota y Aburtok Goizeko Izarra Eusko Jaurlaritzaren esku utzi zuen. Honela, Habana transatlantikoarekin batera, gure yate bikaina Europan faxismoaren aurkako borrokan gailendutako ontzi heroiko bat izatera iritsi zen. 1937ko maiatza eta ekaina bitartean Bilbotik Frantziako zenbait portuetara zuzendutako bost ebakuazio-bidaietan ontziratutako 2.000 errefuxiatutik gora elikatzen jardun ginen, gehienak faxismoaren basakeriatik ihesi zihoazen haurrak. Guda-ontzi frankisten erasoetatik libratzeko Royal Navy-ren babesa behar genuenez, ontzian San Jorgeren bandera britainiarra zabaldu behar izan genuen gainera.


Azken bi bidaiak yatearen jatorrizko *Warrior* izenarekin burutu genituen, Ramón de la Sotak sir Hugh Cunliffe-Owen britainiar industrialari handiari ontzia saldu ondoren berreskuratua. Jabe berriak, gizabidetsu, Gurutze Gorriaren eskuetan utzi zuen ontzia Bilbaoko ebakuazio lanean jarrai zezan. Azken bi bidaia horietan Gorlizko tuberkulosoen osasun-egoitzan zeuden haurrek osatu zuten pasaiarien gehiengoa. Ziurrenik, une horretan banandu zen gure etorkizuna yateko erosotasunetatik, alderrai zebiltzan ehundaka haur gaixo horien elikadurarekin bat egiteko. Gorliztik ekarritako gainontzeko tresneriarekin batera, Donibane Lohitzunen eta Baionan lehorreratu ondoren, ehundaka haur horientzako Frantzian prestatu zen osasun-egoitzara eramango gintuzten.



Gure bideak eteten dira

Gertakari latz hauen ostean, Warrior-ek, dagoeneko gu gabe, luxuzko ontzi baten ohiko bizimodu atsegina berreskuratu zuen denboraldi baterako, besteak beste Egeora eta Itsaso Beltzera ere bidaiatuz. 1939ko irailean Bigarren Mundu Gerra sortu zenean, ordea, faxismoaren aurkako borrokari heldu zion berriro. Almirantazgoak enbargatu ondoren, H.M. patrol yacht Warrior II bezala izendatu, armez hornitu eta urpekarien eskolta lanetan jarri zuten. Iturri batzuen arauera, Dynamo operazioan ere hartu omen zuen parte, hau da, Dunkerque-ko hondartzetatik eginiko 200.000 gudari britaniarren eta beste 100.000 frantziar eta belgiarren ebakuazio heroikoan alegia. Dena dela, 1940ko uztailaren 11ean, Ingalaterrako Guduaren hasieran amaitu ziren bere ibilerak, Luftwaffe-ko 50 hegazkin bobaketarik bi txandatan eginiko erasoan Mantxako kanalean hondora bota zutenean.

Hainbat urte geroago, 1993an, Eloy Olabarriak Museoarentzat eman gintuen. Orain, azken bidai hori egin genuela ia 30 urte beranduago, argitara irten gara gure historia ikaragarria kontatzera. Gertakari horiek, gainera, antzekotasunak dituzte Museoko beste erakusketa batean bildurik dauden XIX. mendeko euskal migrazioen eta 1842an 300 euskaldun zeramatzala Montevideotik gertu hondoratu zen Leopoldina Rosa fragataren historiarekin.



Los platos también tenemos historia

PLATOS DEL YATE GOIZEKO IZARRA



Somos dos platos fabricados por sendos productores de cerámica de lujo de gran de gran prestigio en Francia: uno por Gien y el otro por Sarreminegue a partir de 1924.

Pertenecemos al bilbaíno don Ramón de la Sota y Llano, uno de los mayores empresarios de su tiempo, con intereses en la industria siderúrgica, la minería de hierro, las finanzas y la construcción naval y propietario de la Naviera Sota y Aznar que, desde su fundación en 1906 y hasta bien entrada la década de 1950, fue la mayor de España. Durante la Primera Guerra Mundial el mineral de hierro transportado por su flota fue vital para la industria bélica británica, por lo que en 1921 don Ramón fue investido Caballero de la Orden del Imperio Británico.

El yate Goizeko Izarra se cruza en nuestro viaje

Formamos parte de la vajilla del yate Goizeko Izarra, uno de los mayores y más lujosos de su tiempo, adquirido por don Ramón en 1920. Este magnífico buque de 1.266 t de desplazamiento y 86 m de eslora, cuyo nombre original era Warrior, había sido construido en 1904 en Escocia, por el magnate del ferrocarril norteamericano Frederick William Vanderbilt y en 1916 había pasado a la propiedad del también gran empresario y filántropo neoyorquino Alexander Smith Cochran.

En 1917 fue requisado por la Royal Navy y, tras ser armado, sirvió durante la Primera Guerra Mundial.

Bajo la denominación de H.M.S. Warrior, como buque de guerra auxiliar en la escuadra de vigilancia del Caribe, siendo el buque insignia de su almirante, sir William Lowther Grant.

A bordo del Goizeko Izarra dimos de comer a muchas personalidades en innumerables travesías y regatas. Pero nuestra mayor contribución a la historia de la humanidad se produciría a partir del estallido de la Guerra Civil Española en 1936. Justo un mes antes del inicio de la guerra falleció nuestro propietario y su hijo, Ramón de la Sota y Aburto, cedió el Goizeko Izarra al Gobierno Vasco. Junto con el transatlántico Habana, nuestro magnífico yate se transformó en uno de los heroicos buques protagonistas de la lucha antifascista en Europa.

Entre mayo y junio de 1937 emprendimos desde Bilbao cinco viajes de evacuación con rumbo a distintos puertos de la costa francesa durante los que alimentamos en torno a 2.000 refugiadas y refugiados, la mayoría en edad infantil, que huían de la barbarie fascista. A fin de evitar las agresiones de los buques de guerra franquista tuvimos que recurrir a enarbolar la bandera de San Jorge británica para obtener la protección de la Royal Navy.

Los dos últimos viajes los realizamos con el nombre *Warrior*, el original del yate que recuperó tras ser vendido por Ramón de la Sota al poderoso industrial británico sir Hugh Cunliffe-Owen, quien gentilmente cedió su nueva adquisición a la Cruz Roja para que prosiguiera con las evacuaciones desde Bilbao. Fueron los niños y niñas del sanatorio de tuberculosos de Gorliz quienes conformaron la mayor parte de los pasajeros de estas dos últimas singladuras.




Probablemente fue entonces cuando nuestro destino se separó de la comodidad del yate para unirse a la errante existencia de esos cientos de pacientes que necesitaban ser alimentados. Tras desembarcar en San Juan de Luz y Bayona acabaríamos trasladados, junto con el resto de enseres procedentes de Gorliz, al sanatorio que se habilitó en Francia para acoger a estos cientos de niñas y niños.

Nuestros caminos se separan

Tras estos duros sucesos, el Warrior, ya sin nosotros, sería por algún tiempo destinado a la plácida existencia de una embarcación de lujo, con algún viaje al Egeo y el Mar Negro incluido. Pero, tras el estallido de la Segunda Guerra Mundial en septiembre de 1939, retomaría su lucha contra la expansión del fascismo. Requisado por el Almirantazgo, fue renombrado como H.M. patrol yacht Warrior II, armado y destinado a escolta de submarinos. Según algunas fuentes, llegó a participar en la operación Dynamo, en la heroica evacuación de 200.000 soldados británicos y otros 100.000 franceses y belgas desde las playas de Dunkerque. Sea como fuere, acabó sus días hundido en el canal de la Mancha el 11 de julio de 1940, al inicio de la Batalla de Inglaterra, tras ser atacado en dos tandas por 50 bombarderos de la Luftwaffe.

Muchos años después, en 1993 seríamos donados al Museo por Eloy Olabarria. Ahora, 30 años más tarde de ese nuestro último viaje, salimos a la luz para relatar nuestra increíble historia. Un relato que tiene muchas similitudes con la historia de las migraciones vascas del siglo XIX y de los sucesos de la fragata Leopoldina Rosa, naufragada en 1842 cerca de Montevideo con 300 vascos a bordo, que se recogen, al mismo tiempo, en otra exposición del Museo. se recoge, al mismo tiempo, en otra exposición del Museo.





Gien eko zeramika. Ca. 1920
Cerámica de Gien Ca .1920.



Sarraguemines eko zeramika. 1924.
Cerámica de Sarraguemines. 1924.